

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA


Espermatozoide erraldoiak

OSTRAKODOAK oso krustazeo txikiak dira, milimetro bateko tamainara ez baitira ailegatzen, baina badute zientzialariak harritu dituen ezaugarria; arrek euren tamaina baino hamar aldiz handiagoa den espermatozoidea ekoizten dute, eta emeak hori berenganatzeko gai dira.

Orain gutxi egindako aurkikuntza izan bada ere, ostrakodoek 100 milioi urte daramatzate, gutxienez, espermatozoide erraldoiak ekoizten.

München-en (Alemania) dagoen Ludwig-Maximilians Unibertsitatean, Renate Matzke-Karasz ikerlariaren ekipoak ostrakodoen fosilak aztertuz egin du aurkikuntza, holotomografia izeneko teknika, X izpiak eta mikroskopia elektronikoa erabiliz.

Espermatozoide erraldoia sortzea arren arteko lehiari egotzi zaio, baina horretarako erabili behar den energia handiegia da animalientzat, eta ondorioz heriotza azkarra eragin dezakeela uste dute ikerlariak.



Ostrakodoa.

Karbono dioxidorik igortzen ez duen sumendia

TANZANIAKO Oldoinyo Lengai sumendiaren labak karbono dioxidoa izan badu, baina ez du atmosferara askatzen.

Karbono dioxidoa askatzen ez duen labari karbonatita deritzaio eta orain arte itsas hondotik gertatu izan diren lurrazpiko materien isurietan baino ez da behatu. Gainera, bi kasuetan dagoen karbono dioxido kantitate edo proportzioa berdina da, eta bi kasuetan sodio proportzio berdina dago halaber; sodioa omen da karbono dioxidoa laban finkatzen duena eta atmosferara ihes egiten uzten ez diona.

Karbonatitak aztertu ondoren, Mexiko Berriko (AEB) Unibertsitateko ikerlariak uste dute laba zuzen-zuzenean Lurraren mantutik datorrela. Jakina da mantutik zuzenean eratorritako labak ez duela karbono dioxidorik isurtzen, eta horrez gain mantuaren konposizioa berdina dela munduko leku guztietan.

120.000 urtez lo izandako bakterioa esnatu da

Groenlandiako izotzen artean *Herminiimonas glaciei* izeneko bakterioa esnatu dute ikerlariak. Lurralde haietan erruz aurkitzen den *Escherichia coli* baino txikiagoa da iratzarri berri duten hau. Gertaera oso garrantzitsua da, batez ere beste planetetan bizia bilatzen lagundu dezakeelako. <http://ttiki.com/4590>

Pestiziden eta Parkinson gaitzaren arteko lotura

Pariseko Pierre eta Marie Curie Unibertsitateko ikerlariak frogatutzat eman dute pestiziden eraginaren pean bizi izan diren nekazariak Parkinson gaitza garatzeko probabilitate handiagoa dutela. <http://ttiki.com/4591>

Sekretupeko bateria ahalmentsua

Ohikoek baino hamar aldiz iraupen luzeagoa duen bateria garatu omen dute Newcastle, St. Andrews eta Strathclyde-ko Unibertsitateetako ikerlariak. Bateria berriak aireko oxigenoa erabiltzen du. Ikerketa pribatuaren itxura hartu diogu, oraindik gauza gutxi eman baita argitara. <http://ttiki.com/4592>



Zientziari buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua zientzia@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16